

MOZIOA: ZUNDAKETARIK EZI!

Espainiako Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak (MITMA), "ESTUDIO INFORMATIVO DEL PROYECTO DE CORREDOR FERROVIARIO CANTÁBRICO-MEDITERRÁNEO. TRAMO PAMPLONA-ALSASUA" proiektuaren barnean, Nafarroako AHTa euskal Y-arekin lotzeko bi alternatiba ditu. Lehena Iruñetik Gasteiza joango litzateke eta bigarrenak Iruñea eta Ezkioko geltokia lotuko lituzke Aralar zeharkatuz. Bigarren alternatiba honen azterketa teknikoarekin hasi dira eta dagoeneko Sakanako zein Goierriko udalerriek jaso dituzte Espainiako Ministerioaren aldetik zundaketa lanak egiten hasteko oharra eta zehaztapenak. Aipaturiko proiektua guztiek ikusgai duzue Garraio Ministerioaren atarian.

Hemen ondotik pasako zaigun ibilbidearen arabera, trenbidea Lakuntza inguruan sartuko litzateke lur azpian eta Ataun alderik alde zeharkatuko luke, hegoaldetik ipar-mendebalderarte. Altzania, Atxurbi eta Hirimugata azpitik pasako litzateke, Idiazabalen Atxisain baserriaren parean atera, zubi batekin N-1 errepidea gaintetik pasa eta Enpajolatza eta Arcelor artean berriro lur azpira sartuz Ezkio-Itsasora iristeko. Gogoratu behar da, AHTa ez dagoela sarrera eta irteera bakarraz osatuta, tartean, mantenu, larrialdi eta bestelako zerbitzuetarako tunel berri batzuk ere eraikiko lirateke, baita eremu horietara iristeko errepide berriak eta obrako soberakinak pilatzeko eskonbrera erraldoiak ere.

Kezka handiz irakurri dugu Europako Parlamentuak batzordean berriki onartu duela, EAJk proposatuta, abiadura handiko Nafarroako trenbide-korridoreak euskal Y-arekin duen lotura Ezkioetik egitea. Kezka handiz diogu, azterketa tekniko guztiak egiteko dauden honetan, Europako batzordeetan zenbait erabaki hartzen hasiak baitira.

Honen aurrean, zentzuz jokatzeko garaia dela uste dugu, AHTa garatzeko itsukeria alboan utziz, egin nahi dituzten zundaketa hauekin batera. Ezin da euro bat gehiago inbertitu egunetik egunera zalantza gehiago eta gure eskualdeetan aurkako gero eta jarrera zabalagoa sortzen duen azpiegitura zentzugabe batean.

Zundaketa hauek AHTaren garapenerako pauso bat diren heinean, gure udalerriko eta gure bizilagunen interesak babestea ezinbestekoa da, proiektu horrek Nafarroako zein Erkidegoko herritar guztientzat ekarriko lituzkeen ondorioak kezagarriak izango direla kontuan izanik. AHTaren diru xahutze ikaragarri hori herritarren beharrak asetzeko bideratzea garrantzitsua da, bereziki oinarritzko eta funtsezko zerbitzu publikoak finantzatzera. Aldiz, azpiegitura erraldoi hauen aurrean, egungo trazadura hobetzean eta modernizatzean oinarritutako alternatibak seriozki eta zentzuz lantzeko bideak landu behar dira.

Horregatik guztiagatik, Idiazabalgo Udalak honoko eskaerak egin eta erabaki hauek hartzen ditu:

- 1- Abiadura handiko linearen proiektua, bai eta Iruñea-Altsasu eta Iruñea-Beasain trazatuari dagozkion zundaketak eta bestelako azterlanak gelditzea.
- 2.- Tren sozial baten alde egin daitezkeen beste alternatibak azter daitezkeen eskatzea. Alternatiba horiek, betiere, trenbide-sarea modernizatzea, tren bidezko salgaien garraioa bultzatzea, gure herrietako eta eskualdeetako geltokiekiko konexioak eta maiztasunak hobetzea izan behar dute oinarri.
- 3- Hiritarrei informazioa bideratzea, eztabaida soziala bultzatzea eta haien iritzia jasotzea edozein tren proiektuaren obrekin hasi baino lehen.

4-Zundaketa hauek bertan behera gera daitezen eskatuz antolatzen diren mobilizazioekin bat egitea.

5- Akordio hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari jakinaraztea.

6- Akordio hau herritarrei eta hedabideei jakinaraztea.

Idiazabalen, 2024ko otsailaren 29an.